

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

2021eko ekitaldirako ordenantza fiskal eta prezio publikoen behin-behineko onespena

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren zenbait ordenantza fiskal eta prezio publikoren aldakuntzari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2020ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, testu osoak San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo direla jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik. Helbide elektronikoa honen bitartez ere lortu ahal izango da dosieraren edukiari buruzko informazioa: ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org. 2020ko abenduaren 10ean bukatuko da erakustaldia. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira ordura arte behin behinekoak ziren erabakiak.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: www.vitoria-gasteiz.org/zergak

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 23an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE